AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

5971

AGINDUA, 2011ko azaroaren 25ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Ainhoa Aguirre Idarreta andrea Euskal Autonomia Erkidegoko Maisu-maistren Kidegoko praktiketako funtzionario izendatzeko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salak 2010eko azaroaren 23an emandako 807/2010 epaiaren bidez partzialki aintzat hartu zen Ainhoa Aguirre Idarreta andreak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren 2008ko otsailaren 8ko Ebazpenaren kontra jarri duen errekurtsoa. Izan ere, 2008ko otsailaren 8ko Ebazpen horren bidez ez zen aintzat hartzen 2007ko uztailaren 17ko Ebazpenaren, hots, 2002ko azaroaren 8ko Aginduaren bidez deitutako aukeratze-prozesuan Maisu-maistren Kidegoko karrerako funtzionario, Pedagogia Terapeutikoa espezialitatean, izendatzeko eskaera aintzat hartzen ez zuenaren aurka jarritako gorako errekurtsoa. Horiek horrela, 2010eko azaroaren 23ko epaia horren bidez, errekurtso-egileak praktiketako funtzionario izendatua izateko eskubidea duela adierazten da, bai eta aukeratze-prozeduraren tramiteek jarraitu behar dutela ere.

Eusko Jaurlaritzak epaia horren kontra jarritako kasazio-errekurtsoaren kalterik gabe, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salak, 2011ko irailaren 14an emandako autoaren bidez, hartu zuen epaia behin-behingoz gauzatzeko erabakia eta Administrazioak berehala bete behar zuela ebatzi zuen.

Horren ondorioz, Langileriaren Kudeaketako zuzendariaren 2011ko urriaren 21eko Ebazpenaren bidez aldatzen da Langileriaren Kudeaketarako zuzendariaren 2004ko urtarrilaren 7ko Ebazpena. Azken honek 2003ko uztailaren 28ko Ebazpenean argitara eman ziren zerrendak aldatu zituen, hots, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2002ko azaroaren 8ko Aginduaren bidez deitutako irakaskuntza-kidegoetara sartzeko aukeratze-prozesuak gainditu eta selekzionatuak izan ziren hautagaienak. Hortaz, Ainhoa Agirre Idarreta sartzen da selekzionatutako hautagaien zerrendan, Maisu-Maistren kidegoko Pedagogia Terapeutikoa espezialitatean.

2002ko azaroaren 8ko Aginduak, Euskal Autonomia Erkidegoko irakaskuntza-kidegoetara sartzeko aukeratze-probak deitu zituenak, 11.1 oinarrian xedatutakoaren arabera, eta agindu horretan exijitutako baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ainhoa Aguirre Idarreta andrea Maisu-maistren Kidegoko praktiketako funtzionario izendatzea (espezialitatea: Pedagogia Terapeutikoa; zerrenda-zenbakia: 2003058210), Euskal Autonomia Erkidegoko irakaskuntza-kidegoetara sartzeko 2002ko azaroaren 8ko Aginduaren bidez deitutako aukeratze-prozedura gainditu izanaren ondorioz.

Bigarrena.– Praktiketako funtzionarioaren izendapenak esleitutako destinoan hasten denetik aurrerako ondorio ekonomiko eta administratiboak izango ditu.

Hirugarrena.– Agindu honen bidez izendatutako funtzionarioaren erregimena indarreko legeriak praktiketako funtzionarioentzat ezarritakoa izango da.

Laugarrena.– Langileriaren Kudeaketako zuzendariari baimena ematen zaio agindu hau gauzatzeko behar diren argibideak eman ditzan.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salak du epaia gauzatzeko tramiteetan sor daitekeen edozein gai ebazteko ardura, hala baitator xedatuta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 103.1 eta 109. artikuluetan.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko azaroaren 25a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.